

ttüpi-ttapa

1994.eko uztailak 28 • 139. zenbakia


Elkarriketa
Patziku Perurena



DENA PREST DAGO

¡¡FELICES FIESTAS!!

¡¡BESTA ZORIONTSUAK!!



GAN

CAJA DE AHORROS DE NAVARRA
NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

DATUAK

❖ *Jaiero Leitzako karrapean txistua jotzen duen arren ez du bere burua txistulari bezala ikusten, ezta literato bezala ere.*

❖ *Euskararen baitan bizi da eta euskaltzale baino euskaldun soilaren definizioa atseginago du bere buruarentzat.*

❖ *Bere ingurua nola dihoan ikusita beharbada arrotz xamar sentitzen da.*

❖ *Berak dioenez, askoz ere kontentuago biziko zatekeen berak esan nahi duena beste batek idatziko balu eta bere dedikazio bakarra irakurtzea edo ikertzea izanen balitz.*

❖ *Aspertu eta etsia hartu arte euskararen esperientzia historiko eta afektiboa jorratzen segitzeko asmoa du.*

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIA:
ARTXIBOA

Patziku PERURENA: «Ez diagu oinarri sendo bat geure buru eta historian sinisteko»


IKERKETA LANETAN MURGILDUA HABIL GEHIENETAN. BEHARBADA GUSTORAGO IKUSTEN DUK HIRE BURUA LAN HORRETAN SORKUNTZA LANETAN BAINO?

Ez sorkuntza ere gustoko diat. Bainan kontua zera duk; kuriosidadea nian, Azkueren kantutegia begiratu eta baita besteak ere, eta Leitza ez huen inon azaltzen. Hortik hasi ninduan gai horiek lantzen. Nere problema duk gustatzen zaizkidala hainbeste gai ezin naizela denetara iritsi, bainan oso gustora aritzen nauk sormen lanetan, poesian eta pentsamendu lanetan ere bai. Ikerketa lanetan ez zegok deus ere egina eta herri guzietan adibidez elizaren artxiboa hartu eta goitik beheraino ongi aztertu beharko lirakeke datu guztiak. Mila gai zeudek eta nik ahoz belarrira jasotakoa pixka bat ziurtatzeko artxiboetara jotzen diat. Hori duk euskal historiaren beste problema bat. Akonplejatu batzuk gaituk. Euskaldunak bere burua barrendik ez dik kasik sekulan ikusten edo beti beste baten konparazioan. Euskararen desgrazia horixe duk, beti ingurukoaren morroi dela. Ez diagu oinarri sendo bat geure buruan eta geure historian sinisteko.

beste baten konparazioan. Euskararen desgrazia horixe duk, beti ingurukoaren morroi dela. Ez diagu oinarri sendo bat geure buruan eta geure historian sinisteko.

ZER IDURITZEN ZAIK JENDEAK ESATEA BETI IRAGANARI BERTARA BIZI HAIZELA?

❖ *“Euskaldunak bere burua barrendik ez dik kasik sekulan ikusten edo beti beste baten konparazioan. Euskararen desgrazia horixe duk, beti ingurukoaren morroi dela”*



Nere hizkuntza eta nere mundu afektiboari zentzu bat emateko hori guztia jasotzea beharrezkoa egiten zaidak. Lehen elizak kristautasuna sartzeko euskara tresnatzat erabiltzen zuen bezalaxe erabiltzen ditek gaur egun ETBk, Euskadi Irratiak eta Egunkariak kanpotik datorren informazio guztia euskaldungoari sartzeko. Herri izateko beharrezkoa ote dugu guzi hori?

ZER DU TXIRRITAREN GARAIK EGAÑARENK EZ DUENA?

Txirrita bere garaian bertsolari natural bat huen eta Egaña gaurko gizartean espektakularen zerbitzura dagoen joraleko morroi bat duk.

NOLA IKUSTEN DITUK BIHARKO LEITZARRAK?

Beste edozein herri-takoak bezalaxe, desertu kultural batean bizi diren tipoak bezala, TBaren inperioak kanpoko informazio eta kultura baino ez baitigu ematen. Euskara horretarako erabiltzeak neretzako ez dik balio.

AURTENGO NAFARROA OINEZ BIDA-SOAREN INGURUAN EGINEN DELA PRO-BETXATUZ, IZOKIN BAT HARTU DUTE LOGOTIPO BEZALA ANTOLATZAILEEK, PRESA ETA OZTOPO GUZTIEN GAINETIK SALTOKA DATORREN IZOKIA, ALEGIA.



Joan den urrian eman zen ofizialki ezagutzera Nafarroa Oinez aurtengo edizioa Beran burutuko dela. Bertze batean izan beharko du Tuteran. Bitarte honetan ez dute ez denbora alferrik galdu Bera aldean. Honezgero den dena prest dute irailaren 18koa arrakastatsu suerta dadin eta bitartean, aktibitate sorta zabala urte hau berezia dela oroitarazteko.

TESTUA
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIAK
KARMELE TOLOSA

NAFARROA OINEZ: ANTOLAKETAREN AZKEN TXANPAN MURGILDUAK



uri furian dabilta Nafarroa Oinez 94ko antolaketarako Lan Batzorde guztiak. Hoietariko batzuk egina dute jada esfortzurik haundiena, bertze batzuk, ordea, hemendik aitzinera joanen dira zehazten eta osatzen. Guztien artean zientoka lagun dira lanean dabilzanak irailaren 18ko

egun nagusia inolako arazorik gabe gaintitzeko.

HAINBAT BATZORDEREN LAN ISILA

Tamaina honetako ekitaldi batean normala den bezala, lan egitura zabala jarria dute martxan Labiaga ikastolakoe. Lan Batzorde bakoitzak bere ardurak xeheki ze-

hastuak ditu eta bakoitza bere martxan ari da lanean Batzorde Iraunkorra eta koordinatzailean begiradapean.

MATERIALETATIK DATOR DIRU-ITURRI NAGUSIA

Izokiaren logotipoa daramatela, klase guztiko materialak atera dituzte saltzera. Joxan Oiz koordinatzaileak

«Nafarroa Oinez-i esker, Bide Osoa egin ahal izatea espero dugu»



Joxan OIZ
Nafarroa Oinez 94ko koordinatzailea

■ Zer ekarriko dio Nafarroa Oinezek Labiaga ikastolari?

□ Leloak dioen bezalaxe Bide Osoa egiteko aukera ekarriko digu. Lehenik egoitza berri bat altxatuko dugu ttikientzat eta hauek utzitako lekua probextuz, Hezkuntza Erreformak dakarren Derrigorrezko Hezkuntza Berri Osoa kalitatezko D ereduan eskaini ahal izatea espero dugu. Horretarako ari gara prestatzen, ez bakarrik azpiegitura mailan, baita Hezkuntza

Erreformari gogotik eusteko ere. Izan ere, hogeit urtez frogatu egin dugu erronkei eusten badakigula. Urteotan ikastolak herri mailan lortu duen errotzea, partaidetza eta laguntza zuzenaren bitartez, eta halako erantzuna ari gara jasotzen. Ez gabiltza bakarrik Oinez 94 honen antolakuntzan, gibelean herritarren gogoalagun dugu. Dena den, falta zaigun azken txanpa honetarako animoak eman nahi nituzke eta oraindik jende gehiago behar dugula gogoratu.

adierazi digunez, 'duela urte batzuren aldean, gaur egun materialen salmentatik lortzen da dirutzarik haundiena'. Horretarako, araberrako esfortzua egin beharra dago eta helburua, irailaren 18rako 'guztiguztia saldua egotea' litzateke Joxan Oizek dioenez. Sanferminetan emaitza onak lortu dituzte eta abuztuan herrietako bestetan bilduko dituzte salmenta indar guztiak.

GIROTZE KANPAINATIK OINEZ EGUNERA

Ikuskizunetako Batzordea da afera honetaz arduratzen dena eta bere helburua ez da dirua ateratzea, herria Nafarroa Oinezarako girotea baizik. Zentzu horretan, urte hasieratik kantaldi, bertso saio eta kirol saioak antolatu dituzte. Halere, irailaren 3an Negu Gorriak Beran eskainiko duen kontzertuak, 'Nafarroa Oinez egunerako entrenamendua izan nahi du'. Nafarroa Oinez egunean denetarik izanen da, eta area guztiak behar bezala atenditzeko, laguntzaileak biltzeko deia ere zabaldu dute. Aurreikuspena-

ren arabera, mila eta berrehun lagun ariuko dira egun horretan lanean eta egitaraua ere zehaztua dago. Zentzu horretan badaude zenbait nobedade: errate baterako 'Trialsin' izeneko ikuskizuna edo Garmendikobordako arean jarriko den txoznan alkoholik gabeko edariak salduko direla bakarrik... Bera eta zirkuioa airetik ikusteko, bertzalde, 3 haize-

globo ibiliko dira egun osoan goiti eta beheiti.

18.000 AUTO ETA 700 AUTOBUSENDAKO APARKALEKUAK


Jende eta ibilgailuen uholderako ere prestatuak daude antolatzaileak. Guztira 18.000 auto eta 700 autobusendako aparkalekuak pentsatuak dituzte jabe eta maizterekin hitzegin ondolik. Momentuz autoendako

Alkaiagako kanpalekua, Agerrako Futbol zelaia, harrobia eta holakoak dituzte, eta autobusendako Zalain.

9 KM.KO ZIRKUITOA

Beheko irudian ikusten ahal dira xehetasun guztiak. Ageri denez, ibilbideak bi alde ditu; Suspeltiki alde eta Zia-Dornaku alde. Honetarako ere beharrezko baimenak eskatuak omen dituzte Joxan Oizek dioenez. ■

ZIRKUITOA ETA AREA BAKOITZAREN KOKAPENA



EGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.800 ALE

RGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-
ien. **Publizitatea:** Miren Kar-
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-
Arozena, Joxemanuel Iri-
ien. **Erredakzio taldea:** Pe-
Apezetxea, Juainas Paul,
stina Boan, Bittori Telletxea.
erriemaileak: Joseba Azpi-
z, Esteban Arozena, Juana
ari Saizar, Ainhoa Mutuberria,
an Isasi, Txema Aldabe, Pello
kegia, Txema Urroz, Patxi
xandorena, Daniel Martirena,
bel Maia, Josune Etxebeste,
blo Mendiburu, Joseba Iga-
oide, Alizia Olaizola, Margari
kenike, Koro Irazoki, Mixel
erendiain, Jacqueline, Marta
ria, Oskar Txoperena, Al-
rto Sansiñena, Pello Apeze-
ea, Aitor Arozena, Kristina
an. **Kolaboratzaileak:** EHNE
afarroa, Patxi Lasa, Josetxo
sperregi.

primategia: Gertu (Oñati).
pi-ttapak ez du bere gain
rtzen derrigorrez, aldizkarian
ierazitako erranen eta eritzien
antzukizunik

akunde Laguntzaileak:
ra, Leitza, Goizueta, Areso,
ztan, Urdazubi, Zugarramur-
eta Sarako udalak, Bor-
rietako Euskara Mankomuni-
ea, Malerrekako Zerbitzu
ankomunitatea...

GAURKOTASUNEKO GAIA

Nafarroako Jaialdiak Elizondon

Egun batzutan diru pila bat gastatu eta urte osorako mixeria



Mª Cruz GONI
Dantza Irakaslea

Alde batetik ongi ikusten dut holako aku-
tuazioak eta ekartzea. Bai-
nan bertze ikuspegi batetik
eta bertako kulturgintzan
inplikaturia naizen neurrian,
ez dago deretxorik egun guti
batzutan halako dirutzak
gastatzea eta bitartean, urte
osoan kultura munduan ga-
biltzanontzat lau sos ere ez
izatea. Nik dantzarien mun-
dua ezagutzen dut eta egia
erran penagarria da zein la-
guntza guti ematen den
ikustea.

Dena dela, arras ongi dago
Els Joglars, edo Kiko Veneno
edo pastoral bat ikusteko
aukera izatea. Pertsonalki,
gauza batzuk bertze batzuk
baino gustokoago ditut, bai-
nan tira!. Beharbada progra-
mazioa egin dutenean zen-
bait gauzeekin ez dute sobera
pentsatu zein tokitara ekar-
tzen duten bainan dena dela
kalitate haundikoak direla
iduritzen zaizkit.

Iniziatibari laguntza eman behar zaio ekitaldietara joanez



Ana LARUY
Kultur Teknikaria

'Nafarroako Jaialdiak' izate-
tik 'Jaialdiak
Nafarroan' izatera pasatze-
rakoan, nere ustez egitura
deszentralizaturia osatu nahi
da. Horregatik, Olite-Erribe-
rrin 13 urtez egin ondotik,
aurten Baztan-Bidasoalde
kontuan hartu dute. Oroko-
rrean, edozein kultur egita-
rau, bizirik mantentzekotan,
denborarekin eboluzionatu
behar du, publiko berriari in-
teresetzen zaizkion eta Nafa-
rroako biztanle guziei hur-
biltzeko berrikuntzak aur-
keztu behar ditu. Ikuskizu-
nei dagokionez, publiko
guziari zabaldu zaio eskain-
tza, Kiko Veneno gazteen-
tzat, Maria del Mar Bonet Me-
diterraneoko kulturaren or-
dezkarria edo 'San Mixel Ga-
rikoitz' pastoralara, Nafarroan
lehen aldiz antzestuko dena.
Gure aldetik erantzun ona
merezi du. Jaialdiak Bazta-
nera ekartzeko iniziatibari la-
guntza eman behar zaio eki-
taldietara joanez eta horrela
gure kultur kezka agertuz.

Uda honetan jende mugimendu haundia sumatuko da



Tere SANTXOTENA
Ostalaria

Guretzat priba-
legio bat da
Nafarroako
Jaialdien zati bat aurten Eli-
zondora ekarri ahal izatea eta
horregatik, gure laguntza
merezi du. Izan ere, seguru
nago, honengatik uda hone-
tan jende mugimendu haun-
dia sumatuko dela Elizondon.
Gainera kultura da eta jen-
deari gustatu egiten zaio he-
men zer bait izatea, orain arte
ez baita gauza haundirik izan
azkeneko urteotan.
Programan prestatu dituzten
gauzeekin ere gusto diferen-
teak beteko direla uste dut.
Bada denetarik. Uste dut ongi
errezibituak izanen direla.
Izan ere, jendeak badu guzti
honen berri eta seguru nago
inguruko herrietatik eta, jen-
de aunitz etorriko dela. Gai-
nera abuztuan jende aunitz
bakantzetan egoten da eta
asti librea ere gehiago izaten
du harat eta honat ibiltzeko.

LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

- ☎ Fax Publikoa
- ☎ Enkuadernazioak
- ☎ Inprenta lanak • fotokopiak

☎ **%25eko**

deskuentoa
diska, kasette eta liburuetan

Legarra 9, ☎ 637030 - LESAKA

ZURE BIDAIK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2015

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANZA KALEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRUZIN



Aldizkari honek Nafarroako
gobernuaren laguntza jaso du

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO


**Nafarroa
Oinez-94**
Saioa MITXELENA

Bortzirietako Bertso Eskolako
Doinua: Leiho hertzetik
(Egoñarena)

*Irailaren bemezortzia
ez dugu ez egun txarra
euskara eta ikastolari
baitakarkio indarra
hamasei urte arte luzatuz
ikastolaren adarra
ez da idea kaxkarra
Labiagan deiadarra (bis)
lanean gauden denek diogu
ateriaz irrifarra
"zuen laguntzaz ikastola bat
dugu zabaldu beharra" (bis).*

*Nafarroa Oinez dugu solasgai
aintzineren ta atzera
eta zu lagun gaurko bonetan
niboa animatzera
premi baundia daukagunez guk
etorri zaitez lanera
edo ongi pasatzera
diru aunitz gastatzera (bis)
ostatu ei ez, ikastolari
bultzada bat ematera
giro euskaldun alai batean
bide osoan aurrera (bis).*

**Bertizko
Kontsorzioa eta
Gidaliburua**

Nike ez dakit zer pasatzen ari den baina iduritzen zait Bertizko Kontsorzioak erageltzat hartzen ari gaituela Baztan, Malerreka eta Bortzirietako jendea. Neri behintzat halaxe iduritzen zait 'Los valles tranquilos, Guía de Recursos Turísticos' izenarekin argitaratu duen azken publikazioa ikusi ondok.

Ni baztandarra naiz, negozio bat dut eta Gida horretan Baztani buruz agertzen denaz hitzeginen dut:

- Hasteko, agertzen den informazioa gaizki emana dago (adibidez Irurita eta Urdazubiko bestak abuztuaren 15ean direla dio Gida horrek, eta horrela gauza gehiago)..

- Itxura pobrea ematen dio bakarrik asoziatuak dauden komertzioak agertzea eta ez daudenguztiak. Ejemplu bat jartzeagatik, kanpoko bat liburuxka horretaz gidatzen baldin bada, Arraioz edo

Ornoz edo bertze zenbait herriri buruz dagoena ikusten badu pentsatuko du herri hoietan ez dagoela sikiera ostaturik ere, eta horrek ez du itxura onik ematen.

- Telefono erabilgarriak agertzen dituenen, beriz, Guardia Zibilara agertzen du eta farmaziana errate batera ez. Kuriosoa!

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek
tokia izan dezaten,
ez da komeni
makina idatzitako 25 lerro
baino luzeago
idaztea gutun
hauetan. Idatzi
duenaren izen-
deiturak, telefonoa,
helbidea eta
ENAaren zenbakia
agertu beharko dira.
Laburtu beharra
izanez gero, TTPI-
TTAPAK bere esku
izanen du horretarako
eskubidea.*

• Anuntziatzen diren hainbat komertzioen helbidea ez da agertzen, eta horretaz gain gida hau prestatu duen enpresak, 'Informe' izenekoak, publikitatea eskatu zigun, nahiko zorrotz. Modulo bakoitzarengatik 5.000 pta., eta agertzea nahi baldin bagenuen aitzinetik pagatu behar. Publikatu dutena ikusi dugunean, egia erran, ez zaigu batere gustatu. Euskaraz bidali eta erdaraz ateri dute, logotipoa eta batere sartu gabe. En fin, desastre bat. Baztango udalak duela hilabete batzuk egindako desastrearen ondok orain Kontsorzioak gauza bera egin digu, eta gainera 'Informe'-koei 3 milioi baino gehiago ordaindu behar omen diete. Ez dago deretxorik! Gainera, erran zuten euskaraz eta espainolez egin behar omen zuten. Euskaraz bi hitz sartu dituzte eta haiek ere gaizki idatziak. Egitan lotsagarria!!

AFEKTATU BAT
ENA.- 18.578.021



**Besta onak pasa
falta zaizkigun senideak
gogoan izanda.**

Gure Txokoa Elkarte



**ZALAIN
KARROZERIAK**

**Txapa eta
pintura**


Tfnoa: 63 01 88
BERA

**MASAIA eta
Bizkortze ariketak**

(Fisioterapeuta)

- Astelehen, asteazken eta ortziraletan, 15,30etatik aitzinera
- Astearte eta ortzegunetan, 9,30etatik 13etara eta 14,30etatik aitzinera

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - **BERA**



**ZALAIN
KARROZERIAK
LESACA**



EGUNKARIA 94-VII-17

«Horrelako bestak gero eta gehiago egin beharko liratekeen. Iruditzen zait gero eta indibidualistago ari garela bihurtzen».

Mikel IRIARTE

Baztandarren Biltzarrako kidea
Egunkaria 94-VII-17

«Gure negoziaketa-rako aldarrikapena eutsi eta mantendu egin behar da, baina bakarrik sinesgarria egingen dugu, suetena eskatzeko eta lortzeko gai garen neurrian».

Patxi ZABALETA
Egin 94-VII-14

◆ **Apezaren bizimodua edo irakaslearen oporrak?**

❖ Apezak gaur egun nahiko lan eta irakaslearen oporrak beharrezkoak dira.

◆ **Ume txikiak edo koxkorragoak?**

❖ Klasean txikiak, dudik gabe.

◆ **'La letra con sangre entra'?**

❖ Hainbestearino ez! Konfiantza bai eta errespetoa ere bai.

◆ **Zein dira traketsagoak, neskak edo mutikoak?**

❖ Igualtsoak.

◆ **Pazientzia edo jakinduria?**

❖ Bietatik.

◆ **Irakaskuntza bokazionala da?**

❖ Behar luke.

◆ **Gaur egun, edozein irakasle da?**

❖ Diferentzia badago irakasle batetik bestera.

◆ **Zer iduritzen zaizu pedagogia berritzailea?**

❖ Pedagogo eta laguntzaileek paper ona egiten dute.

◆ **Zer aldatu da irakaskuntzan azken 20 urteotan?**

❖ Gurasoen jarrera asko. Zabalago ematen da eta gutxiago sakonduz.

◆ **Zer iduritzen zaizu Leitzan egiten ari diren obrak?**

❖ Onerako izanen direla pentsatzen dut.

◆ **Eta orain zer moduz bizi zara?**

❖ Ederki, oporretan nago eta...



Asun LASARTE

Leitzako irakasle jubilatua

**BILBON
IKASLEEN
EGOITZA
(94) 4161732**



Legia 11 - 63 06 64 BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

SEMPER ANAIK



RENAULT BANATZAILE OFIZIALA
☎ 630621 • BERA

Besta zor-iontsuak opa dizkizue



MOLINERO
PINTURAK



Etxe barneko hezetasan eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberrako prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA



Lapurrak sartu dira hainbat dendetan

Aste berean erasoak eta istripuak ere gertatu dira

KRISTINA BOAN

Azkeneko hamabortzaldian herriko hainbat denda eta ostatutan lapurrak sartu dira. Gau partean gertatu dira horrelakoak, eskapareak xehetu eta eramaten dutena kutxa eta makineta diruak dira. Lapurreta hauek duela hilabete bat hasi ziren 'Dorrea' harategian. Orduz gero Altzate karrikako 'Erosle', 'Txokoa' eta 'Pizzio' ostatuetan ebatsi dute. 'Aldi' supermerkatuan ere bi aldiz saiatu dira.

Badirudi 'Dorrea' harategiko lapurrak eta Altzatekoak ez direla berdinak.

Ebasketa giro honek dendetako nagusiak izitu ditu eta gaua dendetan pasatzen hasiak dira batzuk.

Erasoa Gorria Bentan

Erasoa Ibardingo 'Gorria' bentan gertatu

zen. Bi frantziar herriko ostatuetan ibili ondorengo, 'Gorria' bentan sartu eta euren artean golpeka hasi omen ziren. Hori ikusirik, benta honetako nagusia den Pedro Mari Gorriak, kanpora ateri zitezen eskatu zien. Bertzeak orde, gogorki eraso, golpatu eta zauritu zuten. Gorriak buruan hartu zituen golpeak eta semearengatik izan ez balitz, izitzer ateri zela, ondorioak latzoak izanen ziren.

Parapente istripua

Uztailaren 17an Joxemi Jorajuria 'Zanbo', 24 urteko beratarra Jaizkibelera joan zen parapentean ibiltzera eta ustegabearen erori egin zen. Istripu honen ondorioz, Joxemik kolpe larriak hartu ditu buruan.

Zanbo abenturazalea da eta honez gero denbora dexente eramaki du gisa honetako kirolak praktikatzeko.



Amaia eta Joseba Irastorzak I. Nafarroako Trikitixa Txapelketan parte hartu dute. Bi kanporaketa pasatu eta finalean sartzea lortu zuten. Finala Iruñean egin zen uztailaren 3an eta zazpigarren postuan sailkatu ziren.

Omenaldia preso politikoei

Abuztuaren 5ean, tui omenaldia eskai-Bortzirietako preso niko zaie Alzateko politiko eta errefuxia-Plazan arratseko 9etan.

ttipi-flash

Margo eta eskultura erakusketak

Kultur Etxean, Jesus M. Benito margolaria eta Antton Mendizabal eskulturgilearen lanak ikusgai daude uztailaren 31tik abuztuaren 7a bitarte arratsaldero.

J.M. Irazoki seigarren

Ekainaren 16an Donostian ospatu ziren Atletismoko Espainiako Txapelketaren azken fasean, Irazokik seigarren gelditzea lortu zuen. Orain selekzioarekin Txekoslovakia aldera joatekotan dago.

Dantza Taldeak

urtarrilaz geroztik burutu dituen entsaioek eman dutena abuztuaren 2an eta 3an ikusteko aukera izanen da. 150 dantzari arituko dira 2an eta 3an ohizkoak diren Makildantzak, Bordon Dantza eta Aurrekua dantzatuko dira.

Futbito partiduak

Lehenengo eliminatokia jokatuko da.

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Alzate 28 - BERA

SAROBEOkindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 630259 - BERA

Sindikatu eta enpresaren arteko aurreakordioa Laminaciones-en

ESK-CUIS sindikatuak berriz, langileentzat kaltegarria delakoan akordioa ezin daitekela ametitu adierazi du

AITOR AROZENA

Laminacioneseko zuzendaritzak eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuen artean hiru urterako hitzarmenarako aurreakordioa lortu dute. Behin betiko sinadura langileei astearte honetan egin-dako kontsultaren emaitzen arabera egin-zen.

Soldatei dagokien- ez, aurten %0,8ko igoera izanen zen, %1,2koa datorren ur- tean eta %1,8koa 1996an. Portzentai hauek produkzioaren arabera gehitzen ahal dira. Aurreakordioan, oporren kontua zehaz- ten da (Lesakan eta Legasan, 10 egun abuztuan eta 5 aben- duan hartu beharko dira eta Zalainen 15 abuz- tuan) eta erretanak hiru klasetan banatzen dira.

ESK-CUIS sindika- tua aurreakordioaren kontra agertu da, "bi urtetan bizitzaren kos- tuarekiko 7 puntu in- guru galduko baitira".



ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak enpresarekin sinatutako aurre- akordioa kaltegarria da langileentzat ESKren ustez Arg.: ARTXIBOA

Aralarko San Migelera bidaia larunbat honetan, jubilatuen eskutik

Larunbat honetan, uztailak 30, San Fer- min jubilatutako bidaia antolatutako bidaia burutuko da Aralarko San Migelera. Jubilatutako antolatutakoa baldin bada ere, parte hartu nahi duten guz- tiei zabaldu zaie bidai hau egiteko aukera eta txartelak salgai daude.

Marixus elektrogailu dendan.

Irteera goizeko 7tan izanen da Plaza Zaha- rrean. Aralarko San Migelen, aurten hil- dako bazkideen ome- nez meza ospatuko da 12etan. Bazkariaberriz, Lekunberriko Aiesta- ran jatetxean eginen dute.

Aspaldiko partez Zialdoko Madalenak ospatu ziren

Hainbat urtez ospa- tu gabe egon ondotik asteburu honetan burutu dira Zialdoko Madalenak.

Ekitaldi nagusien artean, larunbatean Zialdo auzoko I. txi- rrindula saria eta gauean bertso esko- lako gaztetxoaren saioa

eta Madariagarekin dantzaldia izan ziren. Igandean, Zialdo au- zoak omenaldia eskei- ni zion azken bi urte- tan nazioarteko sariak eskuratu dituen akor- deoi bandari. Auzo bazkarian ere anima- zio polita izan zen gai- teroen laguntzarekin.

ttipi-flash

Etxarte y Cia enpresak eginen ditu udalak bultzatutako apartamentu tutela- tuak. Adineko 22 pertsona biziko dira pisu hauetan eta la- nak 98,9 milioi pe- zetatan eginen ditu Lesakako enpresak.

Beti Gazte futbol talde nagusia 1994-95 denboral- dia prestatzeko la- nean hasi berria da. Preferente mailari eustea izanen da aurtengo asmoa.

KOXXILA
OSTATUA

Larunbatetan
mus txapelketak
sari ederrekin

Zarandia 4 - LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

LORA DENDA
TXIRULA
Bittiria 627542 LESAKA
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

EKAITZA CAFE
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko
toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264



Ur-depositoari iragazki eta kloratzailea jarriko zaizkio

Modu honetara, edateko ura garantia osokoa izanen da

PELLO ETA ALBERTO

Herriak Akoka ondoan duen ur-depositoan zenbait moldaketa lan egingen dira denbora gutxi barne. Aipagarrienak bi dira; bate-tik ura kloratzatzeko makina aldatu egingen dela eta horrekin batera, iragazki berri bat ezarriko dela bertan. Lan hauek egitea 6,5 milioi pezetatan baloratua dago eta dirutza horretatik %90a Nafarroako Gobernuak jarriko du.

Obra hauek egin bitenabar, Akoka eta Lekuarin arteko bidea ere ormigoiztatuko egingen da. Lanak pentsatu bezala joanez gero, abuztuaren hondar alderako akautuak egonen dira.



Bideseinale berriak jartzen ibiliak diren arren, Lizarietako gaina jarri behar lukeena aldatu gabe utzi dute.

Udalak pinuak sartuko Mugerdi aldean

Mugerdi eta Xinaurta artean 7 Ha. pinu sartuko ditu udalak. Horretarako, halere, orain arte baino laguntza gutiago iza-

nen du Diputaziotik. Izan ere, Bortziriak '5b Helburua' izeneko eremutik kanpo gelditu baita azken urte honetan, eta ondorioz,

holako gauzak egiteko dirulaguntza gutiago dago.

Guztira 6 milioi pezetako aurrekontua dago honetarako.

Personaia



Joxe Antonio Indaburu Tomasenea

Buxungoeekin batera, karrakako ondarreko esne saltzaileak zarete. Zenbat etxetik etortzen dira eguneroko esne eske?

Hogeiren bat etxetik, goitibeheiti. Zenbaitek bi egunetik eramaten du.

Noiz arte irautea espero duzue esne salmentan?

Ez dakit. Ikaragarri lotzen du lan honek, alde bate-tik; inora ez zara mugitzen ahal. Bertzetik, segitzekotan, bertze modura beharko genuke antolatuta lana. Eta gu jubilazio inguruko urteetan gabiltza. Seme-alabek ez dute horretan segitzeko asmorik?

Ez, noski. Eta arrazoi dute, hau baino lan emankorragotan ari dira eta.

XATURETXEA



JATETXEA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

BEREAU

jatetxea

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 - LESAKA



«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14



ETXALAR



**HERRIKO
OSTATUA
ETXALAR**

JATETXEA

*Dagoeneko zabalik dago Etxalarko
plazan, ostatu eta jatetxe berria*

© 635290 • ETXALAR

KOXXKONTA



*Ezkontza,
bataio eta
bileretarako
leku egokia*

**Deitu
erreserbak
egiteko**

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA



Hagitz harrera ona egin dio jendeak pizsinari

Igerian ikasteko klaseak heldu den astean hastekoak dira

OSKAR TXOPERENA

Egia erran, giro ederra eman diote pizsinek herriari. Orain arte eguraldi on gutti egin baldin badu ere, egunero jende mordoxka hurbiltzen da freskatzera edo denborapasa. Haurren pizsina martxan paratzeko oraindik zenbait arazo badago ere, haundiak itxura ezin hobea du. Zerbitzu guztiak erabiltzeko modua ez dagoenez, behin behineko zenbait arau zabaldu du udalak, aurtengo udako pizsinaren erabilpena ahalik eta hoberena izan dadin.

Bertzalde, abuztuan hasiko dira igerian ikasitako nahi duenarentzako klaseak.



Eguraldiak lagundu ala ez, gehienetan izaten da norbait uretan Arg.: OSKAR

Pistak Mukegi aldera

Izugarrizko pistak ireki dituzte harrobikoek Mukegi azpiko aldera. Arantzako terrenotan lur eremu bat erosi eta harrobian soberan dagoen lurra ber-

tara eramateko egin omen dituzte. Herritik begiratzuz ikaragarri itxura itxusia hartu du mendiak, ez baitira nolana hikoak kamioiak goiti eta behiti ibiltzeko ireki dituzten bide edo pistak.

Ez al du tamainu honetako obra batek Na-



Garbi ikusten da argazkian, harrobikoek irekitako pistetako bat Arg.: OSKAR

farroako Gobernuak Ingurugiro saileko baimenik behar? Ez al du merezi honek guttienez udal plenotik pasatzeak?

Terreno trukaketa sinatua

Uztailaren 21ean si-

natuziren behin betikoz Baratzondoko terrenoa eta Elustan udalak Martin Telletxeari erositako terrenoaren trukaketaren eskriturak. Orain arteko kontratua pribatua baldin bazen, orain bakoitzak berea eskuetan daukela erraten ahal du.

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA © 630735 • IRUN © (943) 622305



ALBARTETXEA JATETXEA

HARAGI ETA ARRAINETA
ESPEZIALIZATUA

Erreserbak egiteko deitu 627637 Ora

Antoiu 26 • LESAKA

ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guztietako mobleak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 Tfnoa: 637034 - LESAKA

Arantzatik Isabarako trabesia egin dute herriko hameka gaztek

Ibilaldia ez zaie sobera gogorra egin eta datorren urtean esperientzia errepikatzeko asmoarekin dabiltza

MARTA ITURRIA

Uztailaren 1ean Arantzatik abiatuta, Sallent de Gállegotik Isabarainoko trabesia egin du Arantzako mutil talde batek. Hamaka lagun ziren: Gaizka, Ander, Iker, Rafa, Raul, Javier, Joxe Agustin, Asier, Joxe Ramon, Igor eta Jaime. Azken honeri galdera batzuk egin dizkiogu:

Uztailaren 6an Iruñean bukatu zenuen trabesia, kontatu nola moldatu zineten?

Txupinazoa ikusteko garaiz ailegatu ginen Iruñera; jan eta lo berriz, lo egunero kanpoan egin dugu, eta jan herri batetan gosalduz eta egun osorako janaria hartuz. Makarronaz ase gara.



Talde honetan duzue Isabara joan ziren batzuk. Gustora etorri dira paisai ederrak ikusi ondotik

Artxioba

Kilometro aunitz izanen ziren...

Bai, baina aisa egin dugu, lasai ederrean. Egunk fuertena 26 kilometrokoa izanen zen.

Laku eta mendi politak ikusi ditugu, baita animaliak ere, marmota eta sarriak...

Anekdotaren bat...

Ura gabe gelditu gi-

nen batean, elur urtua edan izan behar genuela eta... guarda batekin ere arazo tiki bat izan genuen, baina gaizki ulertze bat bertzerik ez

Euskara ikastaroak

Abuztuaren 1etik 26ra arte euskara ikastaroak antolatu dira Arantzan. Klaseak eskolan izanen dira, jan eta lo berriz, Aterpen.

Trikitalariak

Trikitalari txapelketaren Lesakako kanporaketan Olatz eta Estitxuk hartu zuten parte. Nahiz eta 7. gelditu, espero dugu hurrengorako animoz egonen direla, izan ere hau hasiera bertzerik ez baita izan.

zen izan.

Heldu den urtean errepikatzeko prest?

Bai, baina hori heldu den urtean ikusiko dugu, ezta?

B RADIO BIDASOA

- ✓ **TELEBISTA, BIDEOA, HI-FI, ELEKTROGAILUAK...**
- ✓ **SUKALDE MOBLEAK**
- ✓ **«CANAL +» BANATZAILEA**

EZTEGARA PASEALEKUA 14 • BERA • TfNOA: 630377

ttipi-ttapa

5.800 harpidedun
20.000 irakurle

ARRANO



OSTATUA

Legarra - LESAKA

Aparkatzea galeraziz zenbait seinale jarri dituzte Zubietan

Halere, gidarien erantzun eskaxa ikusita bertze neurri batzuk hartu beharko ditu udalak

AINHOA MUTUBERRIA

Zubieta hain txikia denez, lekuri ez dago kotxeak behar bezala aparkatzeko. Hortaz, jende askok aprobetxatzen du plazan aparkatzeko, traban daudela konturatu gabe. Egoera kezka-garriagoa izaten da asteburuetan, jaietara joateko elkartzerakoan lagunekin tabernara sartzean. Alde batetik, haurrek ezin dute futelean jostatu eta bestalde, turismoarentzat ez da komenigarria, horrelako leku polita hondatzen delako. Hau zuzentzeko udalak hiru seinale jarri ditu ostatuan, Etxeberrian eta Tximinian, ongi ikusteko ezin dela aparkatu. Baina halere, gidariek ez dute kasurik egiten eta plaza erdian uzten dituzte kotxeak. Zer egin? 'Neurri gogorak' hartu behar izanen dira. Lehenbizi multekin hasi eta ikusi beharko da zer pasatzen den.



Ostatuan, Etxeberrian eta Tximinian jarri dira plazan aparkatzea debekatzen duten seinaleak, arrakasta haundiegirik gabe

Giro ederra Ituren eta Elgorriagako bestetan

Akitu berri dira Ituren eta Elgorriagako bestak. Asteburuetan inguruko herrietako jende aunitz agertu da herriotara eta aste egunez berriz, bertakoak ederki probextu dute besta giroan jo ta su aritzeko. Ez dira faltatu noski musika eta dantza, jana eta edana... kirol txapelketak ahaztu gabe.

Eratsungo Iñaki Estanga Mitxelena mutikoari egin diote Nafarroako lehen gibel trasplantea

Eratsungo Iñaki Estanga Mitxelena, 7 urteko mutikoari egin diote Nafarroako lehen gibel trasplantea, Unibertsitateko klinikan.

Sei orduz kirolfanoan egon ondotik, sendatzen ari da poliki-poliki eta medikuek erran dutenez, arras ongi doa bere erreku-perazioa.

Iñakik, 8 urteko neska balentziar baten gibela jaso zuen, Unibertsitateko Klinikako talde bat uztailearen 13an bertara espreski joan ondotik. Iñakiren eritasuna 9 hilabete zuela sumatu zioten 'Byler-en gaixotasuna' bezala ezaguna da eta nahitaezkoa omen da trasplantea.



Iñaki Estanga 7 urteko eratsundarra



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- ☐ Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.

1. kalitateko koltxoia oso prezio interesgarrietan

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

Elgorriagarako errepidea moldatzea 122 milioi pezeta gostako da

'Asfaltos de Biurrun, S.A.' enpresak borts hilabetetan akitu beharko ditu lanak

TXEMA ETA KARMELO

122.281.352 pezetako aurrekontua izanen du Doneztebe eta Elgorriaga arteko NA-170 errepidean, azerak eta zola berritzeko lanak.

Lan hauek, 'Asfaltos de Biurrun, S.A.' enpresak egingen ditu borts hilabetetan, bera izan baitzen aurkeztutako hiru enpresen artean kondizio hoberenak eskeintzen zituenen, hasierako proiektuaren gustariotik %8,52a jeitsiz. Beraz, laister hasiko dira lanak.



Norfres enpresaren egoera ekonomikoa ez da arras ona

Artxiboa

ttipi-flash

Askin

mendiko pistaren moldatze lanak oraindik akitu gabe daudela eta, bere kezka agertu dio Nafarroako Gobernuari. Lana lehenbailehen bukatzea eskatuko zaio enpresari.

'Erreka'

elkarteari 200.000 pezeta eman dizkio udalak, Nafarroako txirrindulari itzulieren etapa bat antolatzeagatik.

940.464 pezeta banatuko ditu udalak aurtengo kirol ekitaldiak ordaintzen laguntzeko

Doneztebeko udalak 940.464 pezeta banatuko ditu herriko kirol elkarten artean, aurtan egin beharreno ekitaldiak ordaintzen laguntzeko. Zehazki errateko Erreka Kirol elkarteak 608.464 pezeta jasoko ditu, Mendaur esku pilota elkarteak 176.000 pezeta eta

laxoa elkarteak 156.000 pezeta.

Elkarteen gastuen erdira ere ez da iristen laguntza hau. Mendaur esku pilota elkarteak 440.000 pezetako gastuak izanen ditu aurtan, laxoa elkarteak 390.000 pezetako diru irteerak aurre ikusten ditu eta Erreka elkar-

teak berriz, 385.000 pezeta behar ditu txirrindularitzarako, 863.160 jubenil eta haundien eskubaloitaldeentzat, 40.000 gomazko paleta txapelketa antolatzeke eta atletismoan 150.000 pezeta Crosserako eta 83.000 pezeta Milirako.

Norfres enpresaren zorra barkatu du udalak

'Congelados del Norte, S.A.' (NORFRES) enpresak udalarekiko zuen zorra bertan behera uztea erabaki du Udaltatzak. Horren ordez, hilean 100.000 pezeta ordainduditu enpresak. Gaur egun, Norfresen udalarekin duen zorra 1.420.338

pezetakoa da, interesak alde batera utzita. Zorra barkatzerakoan, gaur egun enpresak igarotzen ari duen egoera ekonomikoa eta finantzieroa eta horrekin batera eskualdean sortzen dituen lanpostuak kon-tuan hartu ditu udalak.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEn



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN
zure esku gaituzu.
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

MariCruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

Abuztuak 10, asteazkena
8etan altxaferoa. Ondoren txaranga eta buru-haundiak. **9etan** Baztan zopak, Ulibeltzak elkartean eta Herriko Ostatuan. **12etan** dantzaldia 'Jator' taldearekin.

Abuztuak 11, ortzeguna
San Tiburtzio Eguna

10etan argisoinuak. **11etan** meza. **12etan** gomazko paleta partidua 4an barnean Ibarra eta Maritxalarren artean. **6etan** aizkol apostua: Larretxea-Etxeberria, Mingedia I eta II. Ondotik bertsolariak. Arratsaldean eta gauez 'Jator' taldea.

Abuztuak 12, ortzirala
Peñen Eguna

10etan argisoinuak. **10,30etan** txirrindula laisterketa: Bidasoa-Berroaran. **2etan** peñen bazkaria Herriko Ostatuan. **4etan** peñek txaragakin batera herriko kaleak alaituko dituzte. **6etan** Sunbillako gomazko paleta txapelketaren finalak. **8etan** 'Jator'.

Abuztuak 13, larunbata
Haurren Eguna

10etan argisoinuak. Goiz-arratsaldean, karts, gomazko gazteluak, zezen



Dantzariak: Antonio Maia, Fermin Petirena, Agustin Sainz, Josetxo Apeztegia, Pako Petirena, Josetxo Ganboa, Juan Jose Sainz, Jose M^a Hernandorena eta Antonio Arretxea



J. Ramon Almandoz, M^a Jose Bertiz, J. Luis Arrieta, M^a Jose Gelbenzu, Jose A. Errandonea, Antoni Ibarra, J. Antonio Ibarra, Adela Mitxelena, J. Martin Agirre, Maritxu Petirena, J. Miguel Zelaieta, Marisol Otxandorena, Genaro Gendera, Jose M^a Ibarra, J. Luis Ibarra, Josetxo Apeztegia eta J. Pedro Bertiz.

mekanikoa eta tren txu-txu. **10etan** mus txapelketa Ulibeltzak elkartean. **4,30etan** plater tiraketa-herrikoentzat. Arratsaldean eta gauez 'Arkaitz' taldea. **Gaueko 2,30etan** kantontzilo eta braga laisterketa. Irabazleak zikiro-jatea dohain.

Abuztuak 14, igandea
Ezkonduen Eguna

10etan argisoinuak. **10,30etan** tikien txirrindula laisterketa. **2etan** zikiro jatea. **6etan** pilota partidua. Arratsaldean eta gauez 'Basakabi' taldea.



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
 Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

SUNBILLAKO FONDA

Pintxoak eta bokadilloak

IRURIBIETA

OSTATU JATETXEA

Irun-Iruñea Bidea, 61,5 Kma. , Tfnoa:450399 - SUNBILLA

HERRIKO ETXEKO OSTATUA

Jatetxea

Besta ederrak pasa

Karrika Nagusia • Tfnoa: 45 01 54 • **SUNBILLA**

ILEA PAINDEGIA

"ARTAZI"



Besta zoriontsuak opa dizkizuegu

Gindal Ibiltokia, 3 - 1º D
 Telefonoa (948) 45 08 44

31791 SUNBILLA

Beintza Labaien


Abuztuak 5, ortzirala
Arratsaldeko 8etan altxafero eta Iturengo txistulariak.

Abuztuak 6, larunbata
Labaienen, **10etan** argisoinuak. **7etan** aizkora apustua. Arratsalde eta gaez, dantzaldia SCANA taldearekin.

Abuztuak 7, igandea
Beintzan, **10etan** argisoinuak. **11etan** meza nagusia. **1etan** Kontzertua Bidasako Akordiolari taldearekin. Arratsalde eta gaez, dantzaldia SCANA taldearekin.

Abuztuak 8, astelehena
Labaienen, **10etan** kalejira. **11etan** Plater tiraketa herrikoendako. **5,30etan** 'Pista Libre' haurrendako karts eta jostagarriak. Arratsalde eta gaez, dantzaldia SCANA taldearekin.

Abuztuak 9, asteartea
Beintzan, **10etan** kalejira. **2etan** zikiro-jatea, Jokin Sorozabal eta Manolo Arozena bertsolarien. Bestak akitzeko, dantzaldia Jose Angelekin.



Aurtengo bestetan sokatira proba beharrean aizkora apustua izanen da Labaienen
Argazkia Patxi OTXANDORENAK utzia



Gazteluko gazteak aizkor-apostuan. Argazkian ageri direnak Fidel Altzugarai, Fidel Gamio, Periko Gamio eta Petxito Sagardia.
Argazkia Bernardo ALTZUGARAIAK utzia

Gaztelu

Abuztuak 3, asteazkena
7etan suziariak eta txistulariak. **9,30etan** Baztan zopak Ostatuan.

Abuztuak 4, ortzeguna
10etan argisoinuak. **12etan** meza. **1etan** salda eta kontzertua Jose Angelekin. **5etan** pala partidua. Dantzaldia Jose Angelekin.

Abuztuak 5, ortzirala
10etan argisoinuak. **11etan** herrikirolak. **1etan** Kontzertua. **2etan** Elizagoien, Amaia Telletxea eta Estitxu Arozena bertsolariak. **2,30etan** zikiro-jatea. **5etan** 'behor hezitzea'. Dantzaldia eta goizaldean baratxuri zopa eta txistor jatea.

Abuztuak 6, larunbata
10etan argisoinuak. **12etan** mus txapelketa. **1etan** kontzertua. Dantzaldia Urrats taldearekin. Goiz-arratsalde 'Pista Libre' haurrentzat.

Abuztuak 7, igandea
10etan argisoinuak. **11,30etan** pilota partidua. **1etan** aizkora apustua. **6etan** plater eta diana tiraketa. Atabal taldea eta txokolatada.

Iturgintza eta kalefakzioa Valentin Cubero

Tfnoa: 45 01 05 • GAZTELU

GAZTELUKO POSADA

Besta ederrak pasa itzazue!!

Tfnoa: 45 01 05 • GAZTELU

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ✎ Langile Autonomoak
- ✎ Nekazariak eta mendi langileak
- ✎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratutarako laguntzak
- ✎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ✎ Diru-laguntza ezberdinak
- ✎ Kontabilitateak
- ✎ IVA eta IRPF
- ✎ Errenta aitopenak
- ✎ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ✎ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BEINTZAKO



OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN




Jon Uitz, etorkizuna izan dezakeen idazlea

Iruñeko udalak antolatutako ipuin lehiaketa bat irabazi du

ESTEBAN AROZENA

“Bizitzak bizitzea merezi ez duelako” izenburua daraman ipuinarekin irabazi du Jon Uitzik Iruñeko udalak eratutako lehen ipuin lehiaketa. Eta ez irabazi bakarrik, bazter guztiak harritu ere bai asteburu batean burututako lan honekin. Esate baterako, epai-mahaia osatzen zuten adituek idazle planta ederra ikusten diote Joni, eta inolako zalantzarik gabe etorkizuna izan omen dezake literatur munduan.

Hemezortzi urteko idazle honek hamalau urteak arte herriko eskolan ibili ondotik Iruñeko San Fermin ikas-



Jon Uitziren esanetan “beltza” da bere ipuina

Egunkaria

tolara jo zuen bere ikasketak jarraitu asmoz. Harrigarria badi-rudi ere, Jon ez da irakurle amorratu hauetakoa, baina Sai-zarbitoria eta Atxaga-

ren liburu batzuetan gauza interesgarriak aurkitu omen ditu.

Ipuin saritura itzuliz esan, “pesimista” eta “beltza” adjetiboak erabiltzen dituela Jon

Uitzik bere lana defini-tzerakoan. “*Errealitate bezalakoa. Bestela irrealitatera joan behar harko nukeen, eta erreala nahi nuen. Beraz, beltza*”.

ttipi-flash

❖ Umore Onak

300.000 pezetatako laguntza jasoko du aurturten Udaletik korporazioak hartutako akordioaren arabera. Komisioak aurkeztutako zerrendak zioenez, ia 2 milioi gastatuko ditu elkarteak urtean zehar antolatutako dituen ekintzetan.

❖ Gazte

Asanbladakoak

festetan ere lanean aritzeko asmotan dira, eta Amabirjin bezperako jaialdiaren antolakuntzan laguntzeaz gain, Udaletxeko orapean taberna bat jarriko dute, gutxienez egun pare batez. Horretarako baimena eskatzerakoa agertu zutenek, urtean zehar burututako jaialdi guztietan diru galarak izan dituzte. Beraz, kutxa hutsa daukatenez festak aprobetxatu nahi dituzte diruberritzeko eta horrela, aurrera segitu ahal izateko.



Autobiak kaltetutakoek euren eskakizunak lortu dituzte

Herritarren elkarteak urtetan egindako lanak fruitua eman du

JUANA M^a SAIZAR

Autobiaren obrak hasi zirenean herritarren elkarteak sortu zen, hainbat kalte eta hondakini soluzio bat bilatzeko. Lehenik zortzi auzotar hasi ziren elkartzen eta denen artean eskaerak egin zituzten, baina ez zuten deus garbirik atera. Honen ondorioz, mobilizazioak ere egin zituzten. Orain dela bi hilabete, afektatutako



guztiak herritarren elkarte honekin biltzen hasi ziren, laguntza bilatz. Nafarroako Gobernuko ordezkariak etorri ziren hainbat aldiz herritarrekin elkarriketatzera. Momentu txarrak pasa zituzten, ez baitzuten hitz politikak baizik lortzen, baina ez zuten behin ere borroka utzi eta aurrera egin zuten. Azkenean, kaltetu guztiek euren eskakizunak lortu dituzte. Zorionak!



Bi ganaderia izango ditugu aurtengo pestetako zezen ferian

Plaza honetara askotan etorri diren Debako Sakaren zezenekin batera Marzillako 'Laparte'koak ere etorriko dira

JOSEBA AZPIROZ

Aurtengo Tiburtzio Donearen zezen ferian, baten faltan bi ganaderia izango ditugu San Migel plaza monumentalean: Debako Sakaren zezenak, oso ezagunak plaza honetan eta Marzillako 'Laparte' ganaderikoak, noblezi gutxiagokoak baina indar eta amorru gehiago dutenak. Tore-roak berriz, Francisco Jose Toledo eta Jose Miguel Araiz, Kaparrosoko torero famatuena izango ditugu. Erizaindegia Julio Quinteroren (aste-buruetakoa) eskuetan egonen da, albaite eta aholkulari ofiziala "Telleri" izango da eta oraindik ez digute esan zein izango diren korridetako lehendakariak. Aurreko entzierriloak ere badu aldaketa: aurtengo zezenak Musu-Zarretik aterako dira aurtengoan.



Leitzako zezen ferian espontaneoak ere izaten dira, nola ez ba!

Harri erori arriskutsuak Irurtzun-Andoain autobidean

Irurtzun eta Andoain autobidearen Leitzako kruze arteko tartea hilabete erdialdera inauguratu zuten eta handik bizpahiru egunetara, uztailaren 18an, izugarritzko eskapada egin zuen Maria Arretxe leitzarrak. Izan ere, Azpiroz

parean harriak topatu zituen bide erdian eta kotxearen direkzioa, karterra etabar xehetu baldin bazituen ere, bera ongi atera zen istriputik. Nafarroako Gobernuari ardurak eskatu dizkio Mariak, autobidea behar baino lehen zabaltzeagatik.

Borda erre

Jose Antonio Perurenak Martikoneko zubiaren azpian zeukan borda erre zen, hilaren 14ko goizeko seiak aldera. Txabolaz gain, barrenean zeuzkan axuri, oilasko, motozerri... kixkali ziren. Sua norbaitek apropos biztu zuela egin du susmoa. Aurtengo erretako bigarren borda da.

ttipi-flash

Etxeben

pelukeritik Manuel Lasarte auzora doan kalean, ezin izango da aparkatu landa aldetik (etxeen ondoan bai). Ibilbideak itxi dituen kaleak direla eta, kale honetatik trafiko gehiago izanen delakoan hartu du erabaki hau udalak.

Portolon-bordako

Mariñelarena anaiek 22-21 tantoz irabazi zuten plazako pilota txapelketaren finala. Jende asko hurbildu zen Koxtoneta Jesus Zabaletaren aurka jokatuako final eder hau ikustera. Nekez izan zezakeen emozio gehiago pilota partiduak, azken tantura arte ez baitzen aurtengo txapelkunak nor izanen ziren jakiterik izan.

INAKI ITURRIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Instalazio zaharren berritzeak

PORTERO AUTOMATIKOAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
© 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
© (943) 61 24 24
20300 IRUN



☎ 510526
LEITZA

IDICOM PRODUKTORA


Ezkontza argazkiak, bideoak, komunioak, urtebetetzeak, jaialdiak, kirolak, musikaldiak, ospakizunak, erreportai bereziak, bideoklipak, telefilmak... Kalitatez eta merke eginak

Hona non duzun aukera !!!



Txokotoko presa erakusten zuen orgak eramane zuen lehen saria

Jende aunitz bildu zen Elizondora Baztandarren Biltzarren hogeitamekagarren edizioan



'Txokotoko presa' izan zen lehen saria eskuratu zuen orga



Iuritako 'ferrategiak' hirugarren saria eskuratu zuen

ARGAZKI ERREPORTAIA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN

Azken urteetan bezala 'Euskarak batzen gaitu' lemapean ospatu zen uztailaren 17an Baztandarren Biltzarren hogeitamekagarren edizioa. Goizetik hasita artisauen erakusketa ikusgai egon zen, baina ekitaldi nagusia orgen desfilea izan zen. Guztira 15 aurkeztu ziren aurtan, gehienak lan haundia eskatzen zutenak eta itxura ederrekoak. Elizondoko Txokoto auzoko presa agertzen



Xorroxinek zuzenean eman zuen desfilea

zuen izan zen irabazlea. Bigarren saria, Baztan ikastolakoak eskuratu zuten eta hirugarrena, aitzinako ferrategi bat antzesten zuen Iuritako orgak jaso zuen. Xorroxin

irritiak zuzenean eman zuen ekitaldia. Merkatu Plazako bazkarian 1.600 lagun bildu ziren



Herri bazkarian giro ederra izan zen

mahaiaren inguruan. Bazkalondoa alaitzeko kantari eta musikarien txanda izan zen.



JATETXEA
Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60



BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

ARROPA DENDA

FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA
KIROL TROFEOAK
Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO




Sanlorentzoak ospatuko dira Zigan abuztuaren 9tik 12ra

Abuztuaren 6an, gaupasa izanen da 'Drindots' taldearekin

PABLO MENDIBURU

Abuztuak 6, larunbata 12etatik 5etara gaupasa DRINDOTS taldearekin.

Abuztuak 9, asteartea Goizeko 12etan suziariak eta ezkil errepika. 8etan baztan-zopak Etkezuri eta Indako ostatuetan. Gaueko 9etan gazteen afaria. 12etatik 4etara dantzaldia Modestorekin.

Abuztuak 10, asteazkena San Lorenzo eguna Goizeko 11etan meza nagusia. 12etan hamekoa herriko plazan eta Baztango dantzariak. Arratsaldeko 6etan, herriko mutilen palazko pilota txapelketa. Arratsaldez eta gauez dantzaldia Martin tal-



Osasuna futbol taldeak Elizondo aukeratu du denboraldia prestatzeko. Ea lehen mailara igotzeko baliogarria zaien... Arg.: ONDIKOL

dearekin. Abuztuak 11, ortzeguna 11etan nesken palazko pilota txapelketa. 12etan mus txapelketa. 6etan haurrentzat jokoak eta ondotik txokolatada. Arratsal-

dez eta gauez, dantzaldia Modestorekin. 10etan kantaldia Erramun Martikorenarekin. Abuztuak 12 ortzilerie 11etan palazko txapelketaren finala. 12etan mus txapelketaren fi-

nala. 2etan zikiro-jatea. 8,30etatik 10etara dantzaldia Elurpe taldearekin eta 12etatik aurrera gaupasa 'Elurpe' taldearekin. Ondotik, 'Pobre de mi' eta besten bukaera.


ttipi-flash

Garagardoaren Besta Iruritan

Iruritikogazteek antolatu dute uztailaren 30erako. Arratsaldeko 5etan hasi eta 12 orduz musika ezberdinak aditzeko eta 20 marka ezberdinetako garagardoak egonen dira probatzeko. Sarrera 800 pta.

Artelan erakusketa Elizondoko Arkupetan

Artelan erakusketa ikusgai egonen da uztailan, abuztuan eta irailan Elizondoko arkupetan. Orduetgia, goizeko 10etatik 2etara eta arratsaldeko 5etatik 9etara izanen da egunero, igande goizetan barne. Bertzeak bertze Oteiza, Mendiburu, Tomas Sobrino, Ciaurritz, Millares eta bertze hainbaten lanak ikusi ahal izanen dira.



SOULE

GURUTZE eta HILARRIAK

© 45 30 38 ARIZKUN • © 12 35 72 IRUÑA

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

JOMI EROSTETXEA

- BAINURAKO MOBLE ETA GEHIGARRIAK
- SUKALDERAKO TRESNAK...

Santiago 60-B • ☎ 452395
ELIZONDO



OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

* Zure ingurua klase guztako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55
BERA

FZ

FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ ERREBELATZEN ditugu "FUJI" kalitatearekin

Sara

Trinketeko Xoko lehiaketa ekainaren 19an bururatu zen

Kontrabandisten Laisterketaren hogeitamabigarren edizioa agorrilaren 21ean iraganen da

MIXEL ETA JACQUELINE

Trinketeko Xoko lehiaketa ekainaren 19an bururatu zen. Ondorioak hauek dira:

Lehen mailan: Nino, 30; Alain Telle-
txeak 27.

Bigarren maila:
J.C. Adelaidek, 30;
Martin Jorajuriak, 17.

Hirugarren maila:
Migueltoorenak, 30;
Fredok, 17.

Laugarren maila:
Christophe Mariluz 30;
Jean Garat, 16.

Finalen ondotik pilotazale guziak otuntza baten inguruan bildu ziren.



Sari banaketaren ondotik pilotazale guziak otuntza baten inguruan bildu ziren

Barnetegia uztailaren 16an hasi da

Urte oroz bezala Donostia eta Errenteriko lau euskaltegi barnetegia jarri dute Sarako eskola publikoan. Hiru txandatan egiten diren euskal ikastaldiak uztailaren 16a eta agorrilaren bukaera artean iraganen dira. Euskaltegi hauen xedea plazatik hurbil lur baten aurkitzea beren barnetegia-
ren egiteko litaik. Horrela, urte guzian baliatuko lukete.

Kontrabandisten lasterketaren XXXII. edizioa agorrilaren 21ean iraganen da

Aurtengo laisterkaldia hogeitamabigarrena da. Beti bezala mugaz bi aldetako 18 herritik jin 36 laster-

kariak parte hartuko dute, erran nahi baita 9 bikote Iparraldetik eta 9 Hegoaldetik. Korrika hunek 9 kilo-

metra egiten ditu, baina zailak, Larrun mazelan den Zazpi Fagoraino upatu behar baita. Abiatzea Setan

izanen da.

Egunean zehar azoka bat izanen da plazan eta hor aurkitzen ahalko dituzue

janariak, Irulegiko arnoa, gasna, goxokiak, kontserbak eta eskuz egindako gauza aunitz...

HERRIKO ETXETIKO EDANTEGIA

*Michel eta Kattin
Guernindia*

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

**SUKALDE ETA
BAINU MOBLEAK**

Egoki-ren banatzaile
baimendua



*Ezkontzetako erreportaiak
argazkiak eta bideoa*

MARKOAK eta MOLDURAK

Eta orain, DONEZTEBEN ere

Tfnoa.: 45 0825 • Nagusia 4 • **DONEZTEBE**

Tfnoa.: 58 01 55 • Santiago 40 • **ELIZONDO**

Urdazubi

Hungariako dantzariak herriko etxeetan izan dira bi astez

Bertzalde, uztailan zehar herriko neska-mutikoak Elizondoko igerilekurat gaten dira

ALIZIA OLAIZOLA

Joan den urtean, uztailan Atsulai dantza taldekoak Hungarian pasatu zituzten bi aste, bakoitzak familia batetan egonez. Aurten Hungariako haurrak hemen egon dira. 14 urteko Silvia Olaizola ere, koloniatan Gipuzkoaldean izana da zortzi egun pasatzen.

Igerian ikasten

Uztailan haurrak izan dira Elizondoko igerilekuan, egunero autobusean joanez. Igerian hobeki ikastea eta bidenabar ongi pasatzea zen beraien asmoa. Istripu bat ere



Uztailaren 2an ezkondu zen Urdazubiko Txomin Iribarren Elbeteko Karmentxu Jaurena-ekin. Zorionak.

gertatu zen uztailaren 15ean. Urdazubiko 6 urteko haurra, Xabier Etxeberria, kotxe batek jo zuen igerilekutik etxerat heldu zenean. Karretera gurutatzu zuen, kotxe bat heldu zela ohartu gabe, autobusak etxe ondoan utzi zuenean. Operatu ondotik, pittaka-pittaka errekeruperatzen ari da.

Arkeologoak Berraberriko lezean

Azken urteotan bezala uztailan etorri dira hamabortz bat arkeologo Berraberriko lezeak aztertzen segitzeko.

Zugarramudi

Gaupasan lanean aritu zirenendako afaria uztailaren 30ean

Denetara ehun eta hogeit hamar pertsona aritu ziren besta horretarako lanean, nahiz eta, beti bezala, agertu ez zirenak ere izan

KORO ETA MARGARI

Uztailaren 30ean Armua jatetxean eginen da gaupasan lanean aritu zirenendako afaria. Denetara 120 bat lagun aritu ziren besta horretarako lanean, eta ageri zen jendea gustura ari zela. Aunitzek agindua zuten baina lan gehiago bete zuten beren borondatez; baina denen erranez, baziren ere lan gehiago egin behar izan zutena bertze batzuk agertu ez zirelako beren turnotara (betiko ixtoria...)



Bazterrak sobera idor omen dire, baina Martineko Mertxek suertea izan zuen 710 gramuko onddo beltz bat harrapatu baitzuen Iturriko-borda aldean

ttipi-flash

- ❖ **Gida zerbitzua**
eskaintzen da lezean uztailan eta abuztuan. 100 pezeta ordainuz gidariarekin bisitatzen ahal dira lezeak. Aurten Teletxeko Florentxik egiten du lana.
- ❖ **Bertze 2 zakur**
pozoinatu eta hilak suertatu dira (Sansinekoa eta Barrantxekoa) eta bertze bat (Domitenekoa) juxtu salbatu dute.

EZKONTZAK

Ignacio Olaskoaga Peciña eta **M^a Pilar Apezetxea Salaberria**, Montevideo (Uruguay) eta Goizuetakoa, uztailaren 16an.

Jose Joaquin Ezkieta Soroazabal eta **M^a Carmen Mendiburu Cordoba**, Billaba eta Zigakoa, ekainaren 25ean.
Domingo Iribarren Larralde eta **M^a Carmen Jaurena Jaurena**, Iruña eta Elbetekoa, uztailaren 2an.

Ricardo Garrido Conto eta **Miren Jasone Goñi Martikorena**, Madril eta Oronozkoa, uztailaren 9an.

Jose Ramon Onsalo Aldabe eta **Ana Isabel Danboriena Samarra**, Areso eta Elizondokoa, uztailaren 16an.

Miguel Elizagoien Cordoba eta **M^a Jose Ugalde Mitxelena**, Iruña eta Lesakakoa, uztailaren 16an.

Martin Taberna Ariztegi eta **M^a Cristina Unson Beltran**, Donostia eta Berakoa, ekainaren 25ean.

Francisco Javier Garcia Garcia eta **M^a Luisa San Miguel Maritorena**, Bera eta Oroz-Betelukoa, uztailaren 9an.

JAIOTZAK

Ainu Van Den Hurk Vogeley, Leitzakoa, ekainaren 26an.

Enha Bertiz Ayuso, Elizondokoa, ekainaren 28an.

Daniel Antonio Dominguez Lameirinhas, Elizondokoa, uztailaren 1ean.

Iñaki Irigoien Bertiz, Elizondokoa, uztailaren 10ean.

Emilio Zabala Ezkurra, Doneztebekoa, uztailaren 6an.

Xabier Zubiri Irigoien, Lesakakoa, uztailaren 5ean.

Beñat Garaia Ara, Berakoa, uztailaren 5ean.

HERIOTZAK

Juan Pedro Oharriz Etxenike, Arraiozkoa, uztailaren 4ean, 32 urte.

M^a Isabel Iparrea Arratxea, Iruritakoa, uztailaren 5ean, 66 urte.

Severiana Luziaga Mendiburu, Lekarozkoa, uztailaren 14ean, 83 urte.

Manuel Gamio Irigoien, Arizkungoa, uztailaren 11n, 80 urte.

Fermina Arrizabalaga Urrizola, Elizondokoa, uztailaren 16an, 68 urte.

Irene Irazoki Ubiria, Lesakakoa, uztailaren 8an, 79 urte.

Adeline Anzizar Goyetche, Sarakoa, uztailaren 15ean, 57 urte.

Fermin Endara Zelaieta, Berakoa, uztailaren 17an, 92 urte.

Juan Irazoki Nesprias, Berakoa, uztailaren 20an, 90 urte.

U.T.B.
1.000.000
pta.rako
3 urtera.

**GARANTIZATUTA
3 URTERAKO**

Pasa zaitez
geure
bulegoetatik
BERA
DONEZTEBE
LEITZA
LESAKA

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak 088/061

Osasun Zentruak

Elizondo 452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka 637428 / 637336

Leitza 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako ospitalea .. 102100

SSko urgentzi

zerbitzua 246750

Virgen del Camino

erresidentzia 109400

Gurutze Gorria 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea 614600

Gipuzkoako ospitala ... 460299

Erresidentzia 453800

Anbulatorioak

Irun 630264/621106

Anbulantziak

Oitz 450242/450342

DYA

Lesaka

(larrialdiak) (943) 464622

Doneztebe

(larrialdiak) 171717

FUNERARIA

Doneztebe 637404

Elizondo 580924

Lesaka 637404

Suhiltzaileak

Oronotz-Mugaire 592255

Garraioak

Bidasotarra 631150

Baztanesa 580129

Leitzaran 515018

Aberiak:


Iberduero 450335/450336

Nafarroako Jaialdietan musika eta antzerkia Elizondon


Nafarroako Jaialdiak Elizondora ailegatu dira lehen aldiz aurtengoan.

Abuztuaren 6an, larunbata, Kiko Veneno kantariaren kontzertua izanen da Mendingueta karrikan 1.200 lagunendakoprestatutokoen estalpe batean. Abuztuaren 12an, ortzirala, Karmen Larunbe dantzariak "Nuevo tango y Boleros" ikuskizuna eskeiniko du. Biharamonean, Maria del Mar

Bonet kantaria arituko da. Abuztuaren 19an, Jose Antonio eta Espainiako Balletak dantza ikuskizuna izanen da. Abuztuaren 20an berriz, 'San Mixel Garikoitz' pastoralak izanen da ikusgai. Ekitaldiei bukaera emateko, abuztuaren 26 eta 27an, Els Joglars antzerki taldeak 'El nacional' antzeslana eskeiniko du. Ekitaldi guztiak gaueko 10etan izanen dira.



Kiko Venenok emanen dio hasiera Elizondoko ekitaldiei



Nafarroako Aretzearen kalitatezko izendapena arautuko duen erreglamendua onartu berri du Nafarroako Gobernuak. Horrekin batera, izendapen honetara bildu ahal izateko erregistro desberdinak ere martxan jarri ditu.

Errekurtso turistikoaren gida eta topogidak

Bertiz Partzuergo Turistikoak bi argitalpen berri ateratu ditu. Batetik zonako Errekurtso Turistikoaren berri ematen duena, turistendako baliagarria eta 64 orrialdetan orotariko informazioa biltzen duena. Bertetik, 12 mendi-ibilbide desberdinen topogidak biltzen dituen euskarazko argitalpena.

zimeldi

ALTZARIGILEA

▲ Kolorea gustatzen zaizu? sar ezazu kolore pixka bat zure etxean altzari tintatuak egiten ditut

Deitu eta neurriak hartuko dizkizut

© 387017 • ETXALAR

LESAKAKO
ZUBIA

N-121-A

ZUMELDI

ETXALARKO
BENTA

TRAFFIC

GIZONEZKOEN MODA

Negozioa ixten dugula eta,

IRUNgo LUIS MARIANON

Doneztebe txapeldun Baztan-Malerrekako Laxoa txapelketan

Doneztebeko Bear-Zanan jokaturako finalean 9-6 irabazi zion Oitzko taldeari eta hirugarren eta laugarren posturako lehian Doneztebe B nagusitu zitzaion Iruritari

Karmelo REKARTE

Doneztebeko A taldeak irabazi du aurten-go Baztan-Malerrekako Laxoa txapelketa, uztailaren 10ean jokaturako finalean Oitzi 9 eta 6 jokoz irabazi ondotik. Doneztebeko Bear-Zana plazan jokaturako partiduan jende pila bildu zen eta bertako ikusleek partidua interesgarria ikusi ahal izan zuten.

Doneztebeko taldea Javier Mariezkurrena (sakalaria), Pello Iribarren (numeroa) eta Patxiku Ganboa eta Luismi Apezetxea (koartoa) osatzen zuten; oiztarrek berriz, Bittoriano Antso (sakalaria), Bittor Zelaieta (numeroa) eta Alberto San Miguel eta Juan M^a Mindegia (koartoa). Markagailuan, txapeldun suertatu zirenak beti aitzinetik joan ziren.

Nahiz eta tarteka hutsaren bat egin, orokorrean maila oneko partidua izan zen. Aipatu beharra dago jokalaria guztien artean gehien nabarmendu zena Pello Iribarren doneztebarra izan zela.

Doneztebe B taldea hirugarren

Finala jokatu baino lehen, Doneztebe B taldeak (F. Ganboa, P. Iribarren, Telletxea eta Irigoien) hirugarren postua lortu zuen Irurita A (Bertiz, Elizainzin



Zutik Mikel Eizagirre (diruzaina eta pilota batzarrekoa), Josetxo Iraundegi (Nazioarteko Pilota Federazioko idazkaria) eta Miguel San Miguel (Doneztebeko alkatea). Totorika, txapeldunak: Pello Iribarren (numeroa), Patxiku Ganboa (koartoa), Luis Miguel Apezetxea (koartoa) eta Jabier Mariezkurrena (sakalaria)

Argazkia: ZALDUA

eta Garate anaiak) 9 eta 3 gaintitu ondoren. Gero, Doneztebeko dantzariak aritu ziren eta eguerdiko 12etan, tradizioak erakusten duen bezala, Angelusa errezatu zen.

Palmaresa

Orain arte jokatu diren 15 edizioetatik, Doneztebek txapela zortzi aldiz lortu du (1981-82-85-86-87-89-92-94); Oitzek berriz, lau (1983-84-88-90) eta Iruritik hiru (1980-91-93).

Dena den, laxoa denboraldia ez da oraindik bukatu. Urtero bezala, laister hasiko

baitira Kopatorneoa eta Haur eta Gazteen txapelketak. Eta Iparraldean jokaturako den Munduko pilota txapelketaren barrenean, irailaren 18an Donibane Lohitzuneko plazan laxoa partidua bat izanen da.

Halere, aurtengo laxoa denboraldian penagarria den berri bat emanda, Donamariako plazaren desagerpena, hain zuzen. Urteetan zehar tradizioa mententzen jakin duen herriak plazaren desagerpenarekin baliteke bertirako agurra ematea laxoari.


Hamabostaldiko jokaldiak



Aresoko sokatira taldea. Iruñeko sanferminetan egindako erakus-taldian, Euskadiko txapeldunak diren amaiurtarrak gaintu zituzten. Aurten, 2. mailako Nafarroako txapela lortu dute eta datorren urtean kon-tuan hartzeko taldea izanen da Aresokoa.

Eskuz banakako finala noiz jokaturako da? Finala eskuratzeko ligilla aspaldi jokatu zen, finalisten izenak aspaldi dakizkigu, baina hau idazterakoan finalaren eguna ez da ezagutzen. Azkenean, inor ez da oroitu jokatu behar denik ere...

4 ERAKUSKETA ZURE ONDOAN



Sukaldea-Bainua
Armario enpotratuak



Senar-emazteen logela



Egongela



Gazteendako gela



ASTELEHENETIK LARUNBATERA IREKITZEN DUGU.
GOIZ ARRATSALDEZ

Bidasoa karrika 45-60 • ☎ 630537 • BERA

KONTZERTUAK ELIZONDO

- **Abuztuaren 6an**
gaueko 10etan Kiko Veneno.
- **Abuztuaren 13an**
gaueko 10etan Maria del Mar Bonet. Nafarroako Festibalen ekitaldien barnean.

GOIZUETA

- **Abuztuaren 14ean**
'ARGIA JAIALDIA'. Gaueko 11etan, Sutagar, Lin Ton Taun, Bittor Aiepe, Bizkar Hezurra. Aurrez sarrerak salgai 1.000 pezetatan, Beran Puy eta Errekalden, Lezakan Atxaspi eta Arranon, Donezteben Tiñin, Elizondon Intzan, Iturengo Herriko Ostatuan eta Leitzañ Ostarra ostaruan.

DANTZAK ELIZONDO

- **Abuztuaren 12an**
gaueko 10etan, Karmen Larunbe dantzariaren 'Nuevo tango y boleros' ikuskizuna.

GUARDIAKO BOTIKAK

- **Uztailaren 25etik 31ra** Lesaka, Ituren, Elizondo (F. Lezaun), Goizueta
- **Abuztuaren 1etik 7ra** Arantza, NARBARTe, Elizondo (Iturralde), Goizueta eta Leitza.
- **Abuztuaren 8tik 14ra** Etxalar, Doneztebe, Irurita, Urdazubi eta Goizueta.

ERREZETA



Malerrekako Zopak edo bustiak

Osagaiak

- Kilo erdi bat ardikia (hezur eta gantzarekin) • 2 porru • 2 azenario • tipula • 1 baratxuri buru erdi bat bere azalarekin • Perrexila xorta bat • Azafrai paketetxo bat • ogia • Pipermin bat •

Prestatzeko manera

Urez beteriko ontzi batean ardikia, porruak, azenarioak,

tipula, baratxuriak eta perrexila egiten jarri, behar duen gantzarekin. Hiru orduz utzi. Egina dagoenean, salda garbia bakarrik atera, salda honeri pipermin bat bota. Aparteko ontzi batean salda pixko bat hartu eta azafraia aluminiozko paper puxka batean txapa gainean jarri kixkurutzen eta ondotik, salda honetan



Fermina
GOIENETXE
Maitxenean
laguntzaile
• Elgorriaga •

bota. Bi zentimetro inguru zabalerako ogi xerrak egin eta saldarekin busti. Azkenean, gaineratik azafrai ura botako diogu. On egin.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoak): 5.000 pzta.
- **Zerri gizena** (95-100): 186 pzta/kilo
- **Zerramak**: 110-120 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra 600
1.koa 570
2.koa 550

- Urruxak**: Pzta/Kg. Kanal
Extra 610
1.koa 580
2.koa 550
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 25.000 eta idixkoak 36.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 38.000 eta idixkoak 50.000 pzta.
- **Behi zaharrak**:
Behi nabar gizena: 440 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 500 Pzta./Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGI, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

- Hiru urteko landare bakoitza
- **Bertako sagarrondoak** 930.
 - **Udareondoak** 930 pta.
 - **Gereziondoak** 1.050 pta.



❖ BARAZKIAK ❖

- **Piper txorizero** zientoa 800.
- **Piper morro** zientoa 800.
- **Piperminak** zientoa 600.
- **Valentziar tipula** zient. 250.
- **Letxuga** zientoa 400 pta.
- **Azelga** zientoa 400 pta.
- **Pepino** sorta 25 pta.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnua: 45 04 91



KATTU OSTATUA JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



Ikurriñak 100 urte bete ditu

Sabino eta Luis Arana anaiek 1894ko uztailaren 14ean Bilboko Euskeldunen Batzokijan igo zuten lehen aldiz ikurriña. Hasieran, bizkaitarren bandera izateko sortu bazen ere eta urtean PNVren bandera bezala ikusi bada ere, bertze euskal probintzietara zabaldu zen, mende bateko Euskal Herriaren historiaren adierazle bilakatuz.

Pixkanaka, ikurriñaren erabilpena hedatuz joan zen eta abertzaleak ez zirenak ere ez zuten, hasieran bezala, begi txarrez ikusten. Hone-la, 1936ko urriaren 16an ikurrina Euskadiko bandera ofizial bilakatzea, Santiago Aznar sozialistaren proposamena izan zen.

Debekatua

Gerra Zibilaren ondorioz, ikurrina debekatu zen Hegoaldean, baina exiliatutakoak beraiekin eraman zuten herbestera. Munduko bigarren gerran ikusi ahal izan zen ikurriña, nazien kontrako borrokan eta 1944ko abuztutik aurrera Iparraldean ikurriña jartzea



Kortabarria eta Iribar, ikurriña zeramatela Atotxan sartu zirenean une beroa bizitu zen. Oraindik legeztatu gabe baldin bazegoen ere, futbol zelaian zeuden poliziak ez ziren deus egitera ausartu

posible izan zen.

Hegoaldean aldiz, frankismoak bere banderak ezarri eta euskaldunak debekatzen zituen bitartean, abertzaleek ikurriña zabaltzeki ekin zioten, klandestinitatean beti ere.

Francoren heriotzaren ondotik ikurriñaren legeztatzea hurbiltzen ari zen, zenbait hori onartzeko prest ez baziren ere.

Baimendua

1977ko urtarrilaren 18an herritarren eta udalen presioa zela medio, Martin Villak ikurriña baimendu zuen eta Euskal Herriko udal aunitan ikusi ahal izan zen. Halere, segurtasun indarrek hainbat pertsona hil zituzten ikurriña eramateagatik. 1980an Nafarroan era ofizialean erabiltzea debekatu zen eta EAEko instituzioetan Espainiako banderarekin batera ezarri behar da, oraindik ere.

ARGIA aldizkaritik hartua

MAGNETISTA - NATUROPATA ZURE BEGIAK ZAINTZEN DITU

✂ **BISTAREN ERREKUPERAZIOA**

- Begi alferrak, estrabismoa, kataratak, retinosia, begietako neuritisa, begietako infekzioak, konjuntibitia, miopia, hipermetropia.

✂ **REHABILITAZIOA**

- Artrosia, Artritis erreumatoidea, bihurturak, lunbalgiak, zerbikalgiak, psoriasia, diabetea, azaleko alergiak, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara (Ordutegia eskatu)
San Marcial 7 - 4. - IRUN ☎ (943) 62 30 55

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

BERA

▮ **Abuztuaren 2tik 7ra.** Ikus xehetasunak aparteko gehigarrian.

LEITZA

▮ **Abuztuaren 10etik 15era.** Ikus xehetasunak aparteko gehigarrian.

SUNBILLA

▮ **Abuztuaren 10etik 14ra.** Ikus xehetasunak 16. orrialdean.

BEINTZA-LABAIEN

▮ **Abuztuaren 5etik 9ra.** Ikus xehetasunak 17. orrialdean.

GAZTELU

▮ **Abuztuaren 3tik 7ra.** Ikus xehetasunak 17. orrialdean.

GARAGARDOAREN EGUNA

IRURITA

▮ **Uztailaren 30ean** arratsaldeko 5etatik goizaldeko 5etara: Gutariko Bat, Noise Hole, Mister Xaguak, Sociedad Alkoholika, Kojon Prieto y los Huajolotes, Basajaun... Gainera, 20 marka ezberdinetako garagardoak probatzeko.

EUSKARA

IKASTAROAK

▮ **Uda osoan** IKAk antolatutako, lau orduko ikastaroak Lesaka, Etxalar, Arantza, Doneztebe eta Leitza. Maila guztiak.

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

Borda argiarekin erosiko nuke Bera, Lesaka, Etxalar edo Sunbillan. ☎ 206502 (Lourdes).

BERA. Pisua eta bajera salgai. ☎ 631218 (Betatik goiti).

Pisu bat alokatu nahi nuke Doneztebe eta Iurrita artean. ☎ 247893 (carlos).

Pisu bat alkatatuko nuke. ☎ 294193 edo 340339.

LESAKA. Txaleta, jardina eta frutondoekin salgai. Prezio negoziagarria. ☎ 637453.

DENETARIK

Baserrietako mobleak eta laborantzarako tresnak erosiko nituzke. ☎ 450054 (gaueko 9etatik 10etara).

Bigarren eskuko hozkailua nahi nuke. ☎ 635290 (Xabi).

Momty Triasin T-219 bizikleta salgai. Freno

hidraulikoak, koadroa aluminiozkoa eta gibelako rueda zabala. Hagitz egoera onean eta hagitz merke salduko nuke. ☎ 635219 (Arratsaldeko 8,30etatik 9,30etara).

Sukalde-kalefaktora salgai ☎ 637883.

Negozio bat traspasatu edo eskuz aldatzen da Baztanen. ☎ 592245. Denda ordutegietan.

Sukalde-kalefaktora salgai Egoera onean dago. ☎ 510296.

Garajea salga Elizondoko Santiago karrikan. 22 m². ☎ 452460.

Tartak egiten dira: urtebetetze, ezkontza etaberrarako. ☎ 631283.

Jostun lanak egiten dira. Kojinak, gortinak eta haurrendako arropak orrokorrean. ☎ 631283.

AZIENDAK

Ardi zakurkumeak salgai. ☎ 634062 (eguerdi eta arratsez).

Ardi txakurkumeak salgai. Hoiien amak ardiekin lana oso ongi egiten du. ☎ 504492.

Bi ahare salgai. Bat pintarria 3 urtekoa eta bertzea horia 4 urtekoa. ☎ 634169 (Juana M^a-Benito).

Bitxakurkume oparitzen ditu Leitzan Eneko Astibiak. ☎ 510268.

Aharia salgai Hernanin. Mutur gorriak eta adar gabeak. ☎ (943) 221686 (9etatik aurrera).

LANA

Klase partikularrak ematen ditut: OHO, REM eta euskara. ☎ 635186 (eguerditan. Arantza).

Kartelak, Bisita Txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188 (bulego ordutan).

IBILGAILUAK

Hagitz egoera onean dagoen FSO markako SS-8643-Aj matrikula duen kamio txoa salgai 325.000 pezetetan. ☎ 631339 (Joakin, gauez).

Renault Express Hobby diesela, NA-AD matrikuladuna, ia berria salgai. ☎ 637784 (gaueko 9etatik 10etara).

Renault Clio 1.700S salgai, NA-AG matrikuladuna extrekin. ☎ 630492 (8etatik aurrera)

AGURRAK

Ainhua Goñi: Zorionak 17. urte betetzean (uztailak 29). Muxu bat Joanes eta Naiaren partez.

Koxkontako Luperi: Neska oso jatorra zara eta oso ondo irakasten duzu, baina nik beldur asko nuen. Ulertuko eta barkatuko nauzulakoan, zorte on opa dizut beste batekin.

Zorionak eta muxu haundi bat Naiara eta Unai anai-arrebentzat, Aresoko Garbiñen partetik.

Olabideko M^a Carmen Elizalderi zorionak zure 22. urtebetetzean (abuztuak 2). Ongi ospatu eta kontu txanpan pixkat guretzat. Lourdes eta Aliziaren partez.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*

Centro Comercial

LUIS
MARIANO
Irun



NEKAZARIEI GONBITEA

1994KO ABUZTUAREN 3AN, NAFARROAKO GOBERNUAK DONEZTEBEN DUEN JUANSENEA ETXEAN, TEKNIKA BERRIAK ETA ZONALDEAN EMATEN AHAL DIREN LABORANTZA EZBERDINEN BERRI EMANEN DA. ZUENDAKO INTERESGARRIAK IZAN DAITEZKE:

■ Frutondoak:

SAGARRONDOA, NASHI, KIWI, FEIJOA, URRITZA, GAZTAINONDOA, INTXAURRONDOA...

■ Fruitu ttikiak:

GROSELLA, BASAKARANA, MASUSTA, MAGURDIA, ARABIA...

■ Baratzeko laborantza negutegian eta kanpoan:

MARURIAK, TOMATEA, LETXUGA, BABARRUN EDO ILARRAK, AZALOREA...

■ Zuhaixka Apaingarriak

Zatoz guzi honen berri izatera



TEKNIKA ETA KUDEAKETA INSTITUTUAK
Telefonoa: 27 80 11

GARAGARDO BESTA

IRURITAN, UZTAILAREN 30EAN LARUNBATA
Iruritako Gazteek antolatuta

- ➡ **12** orduko jaialdia
- ➡ **20** garagardo marka baino gehiago aukeran
- ➡ Bitartean mota aunitzeko musika

✌ **Gutariko Bat**

✌ **Noise Hole**

✌ **Patagonia**

✌ **Mister Saguak**

✌ **Soziedad Alkoholika**

✌ **Kojon Prieto y los Huajolotes**

✌ ...eta bukatzeko dantzaldia **Basajaun** taldearekin.

Jaialdi osoan zehar gaiteroak izanen dira.

Arratsaldeko 5etan hasi eta goizeko 5ak arte iraunen duen bestara etortzen ahal zara bakarrik **800** pezeta ordainduta.



Argazkia: GOIKO

Berako Udalak
besta onak
opa dizkizue
Beratar eta
bisitari guziei



Leitzako Udalak pesta onak opa dizkizue
Leitzar eta bisitari guziei

